

Kalez kale

galdezka


Galderak:

- 1.- Zure ustez zeintzu dira zure auzoak dituen hiru arazo nagusienak?
- 2.- Zer eskatuko zenioke udaletxeari zu re auzoarentzat?
- 3.- Zernolako elkartasuna dago auzokide en artean gauzak aurrera ateratzeko?

Hona hemen zer erantzun diguten ondorengo auzotar hauek:


Gaur:

San Pedro auzoan.



Jesus Huizi, 60 urte, jubilatua

- 1.- 1º hijienea; 2º garbitasuna; 3º kutsadura
- 2.- Herriko etxe haundiari, udaletxeari alegia, eskatuko nioke politika-keriak alde batera uzteko eta herriko auzoak arreta haundiagoz begiratzeko.
- 3.- Hemengo elkartasuna beste lekuetako bezainbatekoa da.



Miguel Ruiz, 30 urte, perzkilea

- 1.- 1º Garbitasuna, orokorki; 2º argikuntza; 3º auzo zaintza haundiagoa
- 2.- Auzoko eta herriko neska mutikoez ardura gehiago edukitzea.
- 3.- Ez dago auzoko arazoak aurrera atera ahal izateko elkartasunik.



Josefa Dopazo, 51 urte, etxeko lanak

- 1.- 1º Auzotik iragaiten den ubide edo erreka garbitu; 2º Eserlekuak konpondu; 3º Lorategiak eta inguruneak txukundu.
- 2.- Udal Osasun Sailak bere ardura pean har ditzala E. Orbegozok botatzen dituen keak eta hemengo ijitoek darabilten droga.
- 3.- Harreman onak dira gure artean.

Josefa Abalia, 69 urte, jubilatua

- 1.- 1º Errekatxoa garbitu edo estali, zeren kiratsa bait dario; 2º Baz



terrak txukundu eguzkitan egon ahal izateko; 3º Lorategiak garbitu, hiru urtetik honantz ikutu gabe bait daude. Gainera, hiru auzoentza ko parke bat beharko litzateke.

2.- Errekatxoa lehenbailehen estaltzea, uharra eta zakarrak bait dakar-tza.

3.- Harremanak, ohizkoak eta normalak dira.

Mª Jesus Elio, 67 urte, etxeko lanak



1.- 1º Errekako usaina eta kiratsa; 2º Eserlekuak eta eskudelak edo baran dak margotu; 3º Higienea, estolderia (alcantarillado) garbitu gabe utzia dagoenez.

2.- Auzoko lorategia txukundu eta zuhaitz adarrak inausi.

3.- Harremanak, ohizkoak dira.



Jose Luis Erize, 30 urte, langabea

1.- 1º Auzo inguruko belardiak moztu; 2º Estolderiagatik datorkigun hiji-ene arazoa; 3º Auzoko lorategiaren ardura gabezia.

2.- Auzoetaz kobratzeko garaian gogoratzen dira, ez ordea garbitzerakoan.

3.- Ohizko harremanak ditugu.



Mª Karmen Prieto, 22 urte, langabea

1.- 1º Erreka estali; 2º Eserlekuak margotu; 3º Auzoko hijienez ardura gehiago.

2.- Auzoko premiei jaramon egin diezaietela, adihidez: hijienea, farolak, zaborra, estolderia, lorategia (5 urtetik hona ikutu gabea).

3.- Gauza batzutarako elkartzeko gara.



Tomasa Colino, 52 urte, etxeko lanak

1.- 1º Erreka garbitu; 2º Orbegozoko kea; 3º Auzoko lorategia eta zabo-rrak.

2.- Erdialdeari bakarrik ez baina inguruko auzoei ere men dagietela.

3.- Beste auzoetan bezalako harremanak daude. Zerbait eskatu behar dene-an elkartzeko gara.



Josefa Aierdi, 65 urte, etxeko lanak

1.- 1º Auzoa barrutik ez-ezik, atzekaldetik ere begiratu behar da; 2º Lorategiko belardia moztu eta garbitu; 3º Bidea itxuragabekoa Orbego-ko uharrengatik.

- 2.- Larrak, lorategiko belarra, osasunaren kalterako den ur-zikin putzu-
a, e.a. begiratzeari.
- 3.- Harremanak oso onak dira auzotarren artean.



Ma Jose Erize, 26 urte, espezialista

- 1.- 1º Lorategia tajutu; 2º Zakur ugari askatuta; 3º Gauzainen beharra,
droga asko bait dabil.
- 2.- Kultur arloan gehiago sar dadila. Biblioteka itxita dago eta ikastera
Errenteriara joan beste erremediorik ez dadukagu.
- 3.- Ez dago inolako elkartasunik; bakoitza norbereaz axolatzen da.



Roman Artesoro, 28 urte, langabea

- 1.- 1º Ijitoak; 2º Zaborrak; 3º Errekaren kutsadura eta estolderia
- 2.- Aurreko arazoak konpontzeaz arduratzea.
- 3.- Ez dago elkartasunik. Auzo bilera baterako deia zabaldu da bertako
txukuntze eta egokitzeaz iharduteko.

o o o o o o o o o o o

San Pedro auzoak 38 bat etxebizitza ditu, hiru etxesailetan banatuak. Etxebizitza hauek, garai batetan "Sindikalekoak" izanak, Euskal Gobernuaren eskutara pasa ziren. Garai horretan, auzoko konponketak (tuberiena e.a.) ordaintzeko diru-kutxa bat eratu zen, etxebizitza bakoitzetik hainbesteko bat jasoz. Iazko urtean, ordea, auzotarrak bihurtu ziren ia etxebizitza guztien jabe. Eta ordutik honuntza auzitan dagoen eta eztabaidatzen ari den arazoa honoko hau da: Hemendik aurrera etor daitezkeen premiei auzoak kolektiboki erantzun behar dien ala soto bakoitzak bere kabuz.

Une honetan, esate baterako, etxe zuriketari eta apainketari ekingo bazaio (% 40ren gastoa Udalaren bizkar dijoazelarik), sotoka ala auzo mailan erabaki eta erantzun behar da?. Arazo hau argitu beharra dute auzotarrek, zeren ez bait litzateke itxurazkoa izanen bi etxesail zuritzea eta hirugarrena zuritu gabe uztea.

Etxejabekide Elkarte gisara funtzionatzen du auzoak eta urtearen buruan karguak aldatzen dira: lehendakaria, diruzaina eta bokalea. Soto bakoitzak, bestalde, bere dirubiltzailea aukeratu izan du orain arte.

Eta honenbestez San Pedro auzoa uzten dugu, hurrengo batetan berri gehiago jasoko dugulakoan bertako biztanleen aldetik.

Jose Luis APERRIBAY